



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2019KO ABENDUAREN 9AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====

ALKATEA

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

ALKATE ORDEAK

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)
Bigarren alkate ordea, Maider Biritxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Azaroaren 4an, 18:05ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

Gai ordenan agertzen diren puntuak eztabaidatzen hasi baino lehen, Alkate jaunak adierazten du, 2 eta 3 puntuak gai ordenatik ateratzen dituela. Informazio gehigarria behar delako Oxinburuko eraikina birgaitzeko lanen pleguak onartzeko eta hobe dela hurrengo baterako uztea.

1. 2019KO URRIAREN 16AN ETA AZAROAREN 4AN EGINDAKO OSOKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO. Aprobación si procede de las actas de las sesiones celebradas el 16 de octubre y 4 de noviembre de 2019.

Josu Beaskoetxeak (EAJ), komentatzen du, urriaren 16ko aktan agertzen dela, ibilgailuen zergaren ordenantza eta plusbalioen zergaren ordenantza bere osotasunean bozkatzerako orduan, EAJ abstenitu zela, baina euren bozka kontrakoa izan zela.

Beraz, mahai-gainean uzten da akten onarpena eta hurrengo bilkuran onartuko dira, behin, aipatu diren zuzenketak testuan txertatu ondoren.

2. TOKI ERAKUNDEEN AURREKONTUEI BURUZKO 10/2003 ARAU FORALAREN 63 ARTIKULUAK EZARTZEN DUENAREN ARABERA, UDAL KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Aprobación de la Cuenta General municipal, tal y como recoge el artículo 63 de la Norma Foral 10/2003 Presupuestaria de las entidades locales.

Urriaren 24ean onartu zen Kontuen Batzorde Berezian Udal Kontu Orokorra. Era horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63 artikulua ezartzen duena betez, 2018 ekitaldiko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorra jende aurrean jarri zen hamabost laneguneko epean, udal iragarki taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

3. HORRELA BADAGOKIO, BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Aprobación definitiva, si procede, del inventario de caminos públicos.

Hau izanik onartzera eraman den ebazpen proposamena:

IKUSITA.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenez, toki-erakundeek beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egin beharko dute.

Artikulu hori betez, eta udal bide publikoen inbentarioa osatzen hasteko asmoz, Arrankudiagako Udalak Sendo S.L. ingeniari-tza enpresari aipatutako inbentarioa egiteko kontratua egin zion. Hura osatzeko prozesuan batzar irekiak egin ziren, osaketa horretan jarraitu beharreko sistematika azaltzeko.

Horrela, eta enpresak bide publikoen proposamen-dokumentua aurkeztu ondoren, Udaltzako, 2019ko martxoaren 14an egindako ezohiko bilkuran, Arrankudiaga eta Zollo udalerriko Bide Publikoen Inbentarioari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Horrela, inbentarioa jendurrean jarri zen, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2019ko martxoaren 27an, eta udaletxeko iragarki-oholean, bi hilabeteko epean, interesdunek alegazioak aurkez zituzten.

IKUSITA.- Jendurreko erakustaldian, erreklamazio/alegazioen ondorioetarako, alegazio-idazki hauek aurkeztu dira:

AUTOR	FECHA Y NUMERO DE REGISTRO	ALEGACION
Enrique Echevarria Echave	2019-4-12 /345	Inclusión antiguo camino a Bakiola
Laurentino Gomez Beldarrain	2019-4-23 /360	El trazado del camino Telleri bide zaharra no debe pasar por delante de su casa.
Begoña Larizgoitia Usaola	2019-5-22 /454	El camino Zollo-Larunberreka no pasa por delante de su casa. Eso es privado.
Begoña Larizgoitia Usaola	2019-5-22 /455	Oposición a catalogar como publico camino Solotxubarriko
Salustiano Etxeberria Larrabide	2019-5-24/ 461	Propuesta de inclusión en el inventario del camino que va de Goienengoa a Egurdibide.
Gaizka Etxabe / Igone San Jose	2019-5-27/ 464	Alegación sobre el procedimiento seguido. Solicitud de exclusión del inventario del tramo que pasa por su terrenos del antiguo camino de Arrankudiaga a Zollo
Jose Francisco Arbide Idirin	2019-5-14/ 437	Camino de Larunbe hacia Basakoetxe, desde el puente, el trazado público es el antiguo camino y no el actual.

IKUSITA.- Udal idazkariak, aurkeztutako alegazioei buruz Sendo S.L. enpresak aurkeztutako txostena ikusita, bere iritziz, bidezkoa da aurkeztutako alegazioak kontuan izanik honako hauek osorik ezestea:

- Enrique Echevarria Echave 2019-4-12 /345
- Begoña Larizgoitia Usaola 2019-5-22 /455
- Salustiano Etxeberria Larrabide
- 2019-5-24/ 461
- Gaizka Etxabe / Igone San Jose
- 2019-5-27/ 464
- Jose Francisco Arbide Idirin 2019-5-14/ 437

Zati batean onartzea honako hauek aurkeztutako alegazioa:

- Begoña Larizgoitia Usaola 2019-5-22/454

Osorik onartzea honako hauek aurkeztutako alegazioa:

- Laurentino Gomez Beldarrain 2019-4-23/360

IKUSITA. – Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuaren 32. artikulua ezartzen duela, toki-korporazioko osoko bilkurak izango duela eraturako inbentarioa onartzea, zuzentzea eta egiaztatzea erabakitze eskumena. Horren aurretik, testu arauemaile beraren 32. artikulua ezartzen duen bezala, korporazioko idazkariaren baimena beharko da, alkatearen oniritziarekin.

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA: Enrique Echevarria Echave, Begoña Larizgoitia Usaola, Salustiano Etxeberria Larrabide Gaizka Etxabe eta Igone San Jose eta Jose Francisco Arbide Idirinek aurkeztutako alegazioak osorik ezestea.

BIGARRENA: Begoña Larizgoitia Usaolak 454 erregistro zenbakiarekin aurkeztutako alegazioa partzialki onestea.

HIRUGARRENA: Laurentino Gomez Beldarrainek aurkeztutako alegazioa osorik baiestea.

LAUGARRENA: Bide publikoen inbentarioa behin betiko onartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea eta alegazioak aurkeztu zituzten pertsonen berriaz jakinaraztea emandako erantzuna.

Aho batez onartzen da ebazpen proposamena, era horretan, alegazioak jarri duten herritarrei jakinaraziko zaie ebazpena eta Bizkaiko aldizkari ofizialean iragarriko da behin betiko onarpena.

4. SINATUTAKO ALKATE DEKRETUEN KONTU EMATEA.

Dación de cuentas sobre los Decretos de Alcaldía firmados.

101-2019. Corrección de errores del decreto de adjudicación de las obras de asfaltado de caminos públicos.

102-2019. Solicitud de licencia municipal de paso de caminos para saca de madera por los caminos municipales de basakoetxe y larunbe a la carretera foral BI-625 por D^a Eukene Oarbeascoa Royuela en nombre de central forestal.

103-2019. Corrección errores del Decreto de adjudicación del contrato para la redacción de un anexo al proyecto de ejecución de la rehabilitación de Oxinburu y asesoramiento en el proceso de licitación de las obras.

104-2019. Solicitud de licencia municipal de obra para rehabilitar caserío en Errotatxu, 2 por D. Jose Fco. Arbide Idirin.

105-2019. Resolución a solicitud de Ayudas de Emergencia Social.

106-2019. Liquidación de la tasa por utilización del campo de fútbol «Javier Escalza». Shotokai.

107-2019. Liquidación de la tasa por utilización del campo de fútbol «Javier Escalza». Escolapios.

108-2019. Bajas de oficio empadronamientos.

109-2019. Resolución sobre solicitud de Ayuda a Domicilio.

110-2019. Delegación facultad de celebrar matrimonio.

- 111-2019. Aprobación inicial del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución 2 de Zelaiko (U.E.2.Z).
- 112-2019. Concesión ayudas para el fomento del euskara.
- 113-2019. Adecuación al planeamiento vigente, de las obras de ampliación de txabola para aperos de labranza y guarda de leña, sita en Bº Atxeta nº23.
- 114-2019. Resolución sobre solicitud de concesión de la Tarjeta de Estacionamiento.
- 115-2019. Delegación facultad de celebrar matrimonio.
- 116-2019. Bajas de oficio empadronamientos.
- 117-2019. Resolución sobre reclamación de responsabilidad patrimonial deducida como consecuencia de una caída en la vía pública.
- 118-2019. Contrato temporal limpieza de edificios públicos.

Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ/PNV) esaten du 108 eta 116 dekretuak eduki berdina dutela. Idazkariak arrazoia ematen dio, lehenengoa espedientea abiaraziz egin behar da eta bigarrena espedientea bukatuz.

Zinegotzi berdinak galdetzen du, zein den Zelaiko UE2Z egikaritze unitatea. Alkateak erantzuten dio.

Era berean esaten du ere, 117 dekretua dela eta (administrazioen erantzukizuna) frogatzea eroria izan dela zaila dela.

Josu Beaskoetxea zinegotziak (EAJ/PNV), galdetzen du 106 eta 107 dekretuengatik. Idazkari kontu-hartzaileak azaltzen dio Escolapiosek ordaindu duela eta diru bilketa exekutibora pasatu dela Shotokaik elkarteak duen zorra.

Era berean galdetzen du 113 dekretuarengatik. Alkateak azaltzen dio Atxetan kokatuta dagoen txabolaren egoera zein den.

5. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ruegos y preguntas.

Josu Beaskoetxea zinegotziak (EAJ/PNV), galdetzen du zelan dagoen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoen integrazioa.

Alkateak erantzuten dio, hainbat dei egin dituela Ur Partzuergora eta azkenean jakin izan duela, Ur Partzuergoak egin behar zuen txostena, honezkero eginda dagoela. Orain faltatzen da txostena ofizialki jasotzea eta horren ondoren, teknikoki eta ekonomikoki zeintzuk diren ondorioak aztertu beharko direla eta Ur Partzuergoarekin hitzartu integrazioaren nondik norakoak.

Eta jorrazeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko abenduaren 9an, 18:35etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 18:35 horas del 9 de diciembre de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.